



Ekipoa	Venturi finkoak (aire-banatzailleak, ur-pinturaz margotzeko kabinetarako)
Kodea	B-2013
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Ur-pinturak lehertzeko denbora gutxitu egiten da, eta beraz, lan horretarako beharrezkoa den energia-kontsumoa gutxitzen da. - Hartara bultzatzen da ur-pinturak eta -bernizak gehiago erabiltzea, disolbatzaile-oinarria duten produktuen ordez, eta azken horiei lotutako KOLen emisioak ezabatzen dira.
Honetan datza:	<p>Venturi finkoek energia baxuko teknologia erabiltzen dute ur-pinturek lehertzeko behar duten denbora murrizteko.</p> <p>Disolbatzaile-oinarriko pintura konbentzionalen ordez ur-pinturak (ekologikoagoak, KOLen emisio gutxiago eragiten dutenak) erabiltzeko, pintaketa-kabinak aire-korrante nahikoa izan behar du, lehortze azkar eta eraginkorra lortzeko. Horretarako, aire-banatzailleak (Venturiak) jar daitezke.</p> <p>Venturi ekipoa da, oinarrian, aire-zirkulazioa eragiten duen ekipoa, sarrerako eta irteerako sekzioen arteko alde handia duena. Venturi ekipoan aire konprimitua sartzen da, eta tarte txiki batetik atera behar du. Ekipoaren sarrerako eta irteerako sekzioen arteko aldearen ondorioz, behe presioko eremua sortzen da ekipoaren barnean.</p> <p>Presioen arteko alde hori konpentsatzeko, ekipoak aire asko hartzen du ingurutik, atzealdean dagoen sarbide osagarri baten bidez; horrenbestez, aire-fluxua sortzen da inguruan, eta fluxu horrek lehortze-prozesua bizkortzen du. +/- 470 l aire konprimitu erabiliz gero minutuko, inguruan sor daiteke 7.000 l-ko aire-fluxua minutuko.</p> <p>Venturi horiek jar daitezke, esate baterako, pistolaz pintatzeko kabinaren 4 izkinetan integratuta.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitezkeen	<p>100 langiletik beherako enpresa txikietan soilik aplika daiteke, honako sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karrozeriak konpontzeko industria (NACE 45.20). - Altzarien fabrikazio eta akaberen industria (NACE 16 eta 31). - Akabera metalikoen industria (NACE 25). - Automobilgintza (NACE 29).